

# ONENA EMATEKO GARAIA

*Hauteskunde egitasmoa*

*2011ko Udal  
eta Foru  
hauteskundeak*

## **Udal eta herrialde ekimena EAJ-PNVren estrategia politikoan**

### **Udal jardueraren printzipio eta erronkak**

#### **Gure konpromisoak:**

- 1** - Garapen ekonomikoa eta enplegua jasangarritasunetik abiatuta
- 2** - Pertsonengan errotutako udal jarduera
  - a) 5 lehentasun: lana, gizarte zerbitzuak, hezkuntza eta gazteria, eta garraioa, mugikortasuna eta aparkalekuak
  - b) Gizarte aurrerapenerako 10 arlo
- 3** - Parte hartzea, gardentasuna eta konpromiso etikoa

**Udal eta herrialde ekimena  
EAJ-PNVren estrategia politikoan**



**Euskadi  
eraikitzen gure  
udalerrri eta  
herrialde  
historikoetatik  
abiatuta**

**Think Gaur  
2020,  
Euskadirako  
dugun ikuskera**

**ADOS, euskal  
gizartearen  
balore etikoak  
indartzeko  
dugun  
proposamena**

EAJ-PNVk azken urteotan euskal gizarteari planteatu dizkio globalizazioaren erronkei aurre egiteko Euskadiren inguruko ikuskera eta etika, eta demokrazia indartzeko estrategia berria.

Maiatzaren 22an ospatzekoak diren udal,foru eta Nafarroako Foru Parlamenturako hurrengo hauteskondeek aukera berria eskaintzen digute **Euskadiren eraikuntzan dugun konpromisoa udalerrietan berresteko eta gure herrirako dugun ikuskera eta estrategia horretan oinarrituta**; logikoki, hauek udalerrri eta herrialde historikoetan izango dute beren tokia, euskal hiritarrendandik hurbilen dauden lurralde esparruak direlakoan eta eremu horretan EAJ-PNVk aldarrikatzen dituen printzipioek beren esanahirik handiena hartzen dutelakoan.

**Think Gaur 2020 egitasmoak Euskadirako dugun ikuskera zehazten du, ikuskera hau 7 printzipiotan oinarritzen da:**

- **Pertsona prestatu eta konpromisodunek osatutako gizartea.**
- **Mundu globalizatuan guztiz lehiakorra den gizartea.**
- **Bere nortasun propioa mantentzen eta garatzen duen euskal gizartea.**
- **Euskal gizarte elkartua eta gizarte babeserako sistema aurreratuan errotuta.**
- **Autogobernu zabala eta bere etorkizuna erabakitzeke eskubidea duen euskal gizartea.**
- **Garapen ekonomikoa jasangarritasunean oinarritua duen euskal gizartea.**
- **Bakean biziko den euskal gizartea.**

ADOS "ekimen politiko,ekonomiko eta sozial" berria da **Euskadirentzat eta euskal gizartearekin lankidetzan oinarri zabaleko etorkizun egitasmoa garatzea helburu duena**, herriaren gehiengoaren eskariei erantzunda, euskal aberria eraikitzen jarraitzeko eta Euskadi mundu globalaren abangoardian jartzeko borondatearekin.

**ADOS egitasmoak gizarte esparru guztietako balore etikoak indartzean oinarritzen du bere jarduera osoa. Gure gizartearen esparru guztietako balore etikoak indartzea. Gure erakunde eta gure gizartearen etikaren muga gorago jarri behar da. Denok eskatu behar dugu gehiago, ikuspuntu etikotik. Euskal gizarteak protagonismo nabarmenagoa hartu behar du subjektu aktibo eta demokratiko gisa, giza eskubideen eta kultura demokratikoaren aldeko defentsan. **Euskal gizarteak oxigenoa eman behar dio sistema demokratikoari** eta bere indar etiko eta indar politikoak eraldatzeko indarra osatu behar dute.**

Euskal Autonomi Erkidegoa osatzen duten Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Herrialde Historikoak eta Nafarroako Foru Erkidegoa, ekonomia eta finantza ikuspuntutik, **egoera berezian dauden guneak dira Europar Batasunaren barruan**, eta seguruenik garatutako mundu osoan, eremu honetan dugun deszentralizazio politikotik aztertuta zein **gastu eta diru sarreren politikak diseinatzeko orduan dugun finantza autonomia handitik begiratuta.**

Kontzertu Ekonomikoa euskal herriak duen berezko eskubide historikoa da eta "forutasunaren gune ukiezina" deitzen denaren elementurik funtsezkoenetakoa. Onartuta eta babestuta dago oraingo marko juridiko politikoaren mailarik gorenean eta deszentralizazio maila hau ahalbidetu izan duen tresna dela; ondorioz, gure autogobernuaren oinarritzko zutabe bilakatu da.

Hain zuzen ere, Kontzertu Ekonomikoak onartzen duen autonomia maila, eta beronek arautzen duen alde bateko arriskua izan dira zerga zuzen arloan zerga politikan diseinatzeko aukera eman duten funtsezko elementuak; honen emaitzak euskal administrazio publikoetan garatzen ditugun gastu politika ezberdinetan islatu ahal izan dira.

Eskubide historikoa eta gure autogobernua eusteko harria izateaz gain, Kontzertu Ekonomikoak eta Herrialde Historikoei zerga eta tributuko arautzeko ematen dion gaitasunak herriko **politika ekonomikoa egiteko tresnarik nagusia bilakatzen dute.**

Bakea, duela hogeita hamar urtetik hona gure udalerrietan bizitza eta lana mehatxatzen duen terrorismoaren amaiera da gure herriak duen erronkarik handiena. **Udaletan**, imajina ez daitezkeen gatazka anitzak kudeatzeko eragileak izanik, ospakizun handirik gabe, zarata handirik egin gabe, **bakea eta bizikidetasuna ahalbidetzeko egitasmo eta ekimenak landu izan dira.**

Honen adibide dira Konpondu foroak: 90 foro izan ziren 2008 urtean, 1000 baino parte hartzaile gehiago, **BAKEAZ** hitz egiten. Columbiako unibertsitateak egin zuen txostenak argi eta garbi ezarri zuen mezu nagusia: euskal gizarteak aho batez gaitzesten du bortxakeria. Udalerrri bakoitzean, gizarteak, hiritargoak elkarrizketa eta bakea eskatzen du. Bazterketarik gabeko elkarrizketa, bizikidetzarako oinarri nagusi giza. Denon arteko elkarrizketa.

**Kontzertu  
Ekonomikoa  
gizartearen  
zerbitzura**

**Udalerrriak,  
bakea eta  
bizikidetzak  
lantzen diren  
esparrua**

# **Udal jardueraren printzipio eta erronkak**



## **EAJ-PNV, tokian tokiko baloreetan sinesten duen alderdia**

### **1) Herrigintzan tokian tokitik abiatuta. Hurbiltasunaren balore estrategikoa**

EAJ-PNVk 2011-2015 legegintzaldirako egiten duen udal eta foru hauteskundeetarako proposamena **udalerrri eta foru herrialde argiago, jasangarriago eta barneratzaileagoak** lortzeko printzipio eta erronketan oinarritzen da.

EAJ-PNVren ideia nagusia da **herri egitasmo oro tokian tokiko esparruan**, hau da, **udalerrietan jaio behar dela**. Herri eta hirietan errotzen baitira gure alderdiaren indarrak: hurbiltasuna, lankidetzeta, lidergoa.

Beste alde batetik, euskal foru erakundeak, **Batzar Nagusiak eta Aldundiak Euskal Herriaren jatorrizko subiranotasun politikoaren ondorengo zuzenak dira**. Aspaldidaniko demokrazian oinarri harturik, beren biziraupenak Euskal herriaren eskubide historikoen eguneratzea suposatzen du. Baina, lotura historikoetatik eta euskal autogobernua duten ordezkarietatik harago, herrialdeko erakunde legegile eta betearazleak barne antolakuntza arrakastatsu eta eraginkorra suposatu dute eta lurrari eta hiritargoari itsatsitako gobernu ekimenaren baliatze eraginkorra gauzatzen dute. **Finantzen kaudimena eta Ongizate Estatua mantentzeari eustea dira gaur egun bere helburu nagusienak**.

Erakundeek osatzen duten sarea konplexuegia dela baieztatzen dutenen aurrean, Euskadiko botere mailakaturako sistemak EAJ-PNVren aburuz, bere bideragarritasun eta eraginkortasun guztia mantentzen du. Subsidiariorotasun printzipioan oinarrituta, EAE eta Nafarroako erakundeek osatzen duten sistemak, unean uneko ezbaiak alde batera utzita, **euskal gizartea egin dute gure inguruko aurreratuenetakoa eta proiektio eta barne kohesiorik handienetakoa duena**.

**Udal eta Aldundiok erakutsi egin dugu hurbileko kudeatzearen eraginkortasuna**. Aurpegia eta begiak dituen gobernuarena, hiritargoarekin bizitzeko mailatik beretik gainerako erakundeetarako gorako mailaketa ezarrita. Egiazko erantzunak emateko gaitasuna du, publikoaren balorea aberasten duten hiritarren beharrezanetara egokituta.

Dena dela, gero eta gehiago aldarrikatu behar da **Udalek erakunde sarean duten benetako boterea**. Gure udalen adin nagusitasuna aldarrikatu behar da, azken hogeita hamar urteotan aldaketa handiena eragin duten erakundeak baitira, gizarte errealitatera egokituta eta gainerako erakundeekin koordinatuta. Eta, herrialde zerbitzu eta artikulazioa oso goi mailan eskainita. **Udal maila herriaren hirugarren ardatz gisa geureganatu behar dugu**.

Gizarte modernoetan hiritarrak ez dira "administratuak" edo zergadunak; bezeroak dira eta garapen sozial eta ekonomikoari egokitutako konponbide integralak eskatzen dituzte.

Ikuspuntu honetatik, toki erakundeek eta bereziki Udalek ezinbesteko ardura bereganatzen dute hiritarren beharrianak **identifikatzeko orduan eta hauentzako arreta pertsonalizatua emateko orduan, beharrezko zerbitzuak eskainita edo dagokion eskumena beren gain duten udalez gaindiko erakundeen aurrean hizketakide bilakatuta.**

Erantzun hau kasurik gehienetan informazioa eta orientabidea emateko hasierako arreta ematearekin hasten diren zerbitzuen prestazioaren bidez ematen da. Hasierako aldi honetan "bezeroaren ikuspuntuak" Udaletatik arreta emateko eredu berria suposatzen du; ulermenean eta Toki Administrazioa hurbiltzen den pertsonaren egoeraren inguruko osoko ikuspuntua duten erantzun eta zerbitzuetan oinarritzen da. "Kontua ez da tramiteak edo kontsultak konpontzea, baizik eta arazoak konpontzea".

## 2) Vocación de servicio al ciudadano



### 3) Kudeatze lan eraginkorra. Estura. Zorroztasuna eta iruzurrari aurre egitea.

Hiritargoari zuzendutako zerbitzua hobetzea da udal eta foru sistemen funtsa. Herri gisa dugun erronka izan beharko da tokian tokiko zerbitzu aurreratuak lortzea, parte hartzean eta gardentasunean oinarrituta eta hemen zein han bizi den hiritar guztiengana iritsiko direnak.

Hiritarrekiko hurbiltasunetik abiatuta, Udal eta Aldundiek hiritarren beharrian eta aurreikuspenak ezagutu behar dituzte eta beren zerbitzuak hauetara egokitu behar dituzte, komunikazio bideak ezarrita eta berrikuntzarako gaitasunak garatuta, zerbitzuetan eta hauek emateko moduan.

Hau guztia **eraginkortasun irizpidean** oinarrituta, arrazoi handiagoz eska baitaiteke toki ekimenaren arrazoibidea neurri handi batean hiritarregandik hurbilen dagoen erakunde mailan izateak ematen dion egoera pribilegiatutik datorrelako. Eta, jakina, harik eta **aurrekontu-zorroztasunik handienarekin** eta toki ekimena gidatu beharko duen **estura printzipioa aplikatuta**, are gehiago oraingoa moduko egoeran.

EAJ-PNVk foru erakundeei begira dituen egitasmo-helburuetako bat da gure Herrialde Historikoan zergen iruzurraren kontrako borrokaren eraginkortasuna handitzea. Baliabide publiko gehiago eskuratzeko ekimena kudeatzeko eta kontrolatzeko tresnen hobekuntzan oinarritu beharko da. **Zorrotz jokatu behar dugu zergen iruzurraren kontrako borrokan.** Ez bakarrik ikuskaritza arloan, baizik eta espedienteak egunero kudeatzean, zergadun bakoitzak Foru Ogasunari dagokion kopurua eman diezaion. Euro bat gehiago edo gutxiago eman gabe.

Exijentzia maila bera aplikatu behar da **gizarte laguntasunen arloko iruzurren kontrolean.** **Gizarte laguntasunak, bai, jakina; baina benetan behar duten pertsonen eta horretarako eskubidea duten ematen direla egiaztatuta.**

Udalerriak dira Administrazioak hiritarrekin kontaktuan izateko lehen harreman lerroa.

EAJ-PNVrentzat politika egiteko eta publikoa gobernatzeko modua onerako eta behin betiko aldatu da: **Politika parte hartzailea gure gizartera geratzeko etorri den iraultza da.** Eta, EAJ-PNVren barruan, horren alde egiten dugu.

Parte hartzea era guztietako esparruetara iristen da: herri mailako egoera politikoa konpontzeko erlasionatutako ekimenetatik hasita, gure herri eta hiriak hobeto funtzionatzeko erabaki txikietaraino. Baina, agerikoa da **toki esparrua dela parte hartzerako eremurik naturalena.**

### 4) Parte hartzea eta gardentasuna

EAJ-PNV, azken finean **zerbitzu publikoa emateko bokazioa duen alderdi politiko udalerrizalea da**, udalerrietan bereganatzen dituen eskumenetan liderra eta arduraduna. Hau guztia osoko gardentasunezko ikuspuntutik aztertuta.

**Gardentasuna eta etika**, EAJ-PNVk gobernatutako erakundeetako gobernu ekimenaren oinarritzko printzipioa izateaz gain, exijentziarik nagusia izan da, oposiziotik hiritargoak gure eskuetan jarri duten egitekoari ekiteko orduan.

**Udal Legea da eraldaketa honi ekiteko gauzatu behar den lehen tresna.**

Euskal Udalentzako une historikoan gaude. Udal Legea lortzea da Toki Gobernuak aspaldidanik bete gabe dugun erronka. EUDEL erakundearen aldetik bultzatu eta aktibatu egin da hori lortzeko prozesua.

Hobetzeko Udal Legea, ez ezabatzeko. Baliagarria dela egiaztatu den sistema hobetzeko.

Oso ondo **funtzionatzen dugu** herri gisa. Baina beti hobe daiteke. Eta, horra hor Udal Legearen helburu nagusia. Ondo bagaude, hobeto egoteko. Nola? **Udalak herriaren sare instituzionalean sartuta**. Pareko biderik gabe eta eztabaida zahar eta zaharkituak berreskuratu gabe. Udal autonomia indartu beharra dago, udalerriei ikusgarritasun instituzionala eman, eskumen propioak dituzten udalerriak lortzea, finantzaketa egokia edo nahikoa ( ez baldintzatua): hau da, **eskubideak eta derrigorak geureganatzea**.

**EUDEL eta Nafarroako udalerrri eta Kontzejuen Federazioa udalerrien hizketakide diren aldetik izan beharreko izaera indartu behar dugu. Bozeramaile, koordinatzaile eta udal interesen baloreen bultzatzaile gisa** duten lana baloratu behar dugu gainerako erakundeen aurrean eta europar esparruan. EUDEL eta FNMC **Udalei zerbitzuak errazteko** lana egiten dute **esperientziak eta praktika onen elkar trukitzea** eragiteko eta praktika hauek ez bikoizteko; halaber, Udalak ordezkatzan dituzte gizartearen eta beste erakundeen aurrean. **Udalerrien ahotsa dira**, eta honek ahalbidetzen du udalek garrantzia irabaztea bestelako botereekiko harremanetan ( hitz egiteko gaitasun handiagoa eta eragiteko gaitasun handiagoa erabaki politiko eta ekonomikoak hartzen diren erakundeetan); halaber, gaitasuna ere badute adostasunaren ikuspuntutik bestelako erakunde batzuekin komunikatzeko.

**UDALBILTZA** EAJrentzat udal oinarri gailu bat izaten jarraitzen du. Gero eta solidarioagoa eta bake eta askatasunean bere etorkizunaren jabe den euskal nazio baten eraikuntzan sakontzen jarraitzeko gailua izaten jarraitzen du.

## 5) Udal Legea eta EUDEL, FNMC eta Udalbiltza erakundeen egitekoa

## 6) Berrikuntza eta e-Administrazioa

Gure udalerriek bizi izan duten eraldaketa sakona eta Toki Administrazioaren modernizazio paregabea, antolatze eta kudeatzeko eredu berriak hartuta, gure herri eta hirietan bizitza kalitatearen hobekuntzarekin batera garatu dira. Baina, egin gabe daude oraindik garrantzi handiko erronka batzuk, **Toki Administrazio berritzaileagoa eta eraginkorragoa eskatzen dutenak.**

Enpresa berriek beren antolaketa eta prozesuetan eboluzionatu duten modu berean, Toki Administrazioak berriro behar du **kudeatzeko eredu berrietara eta teknologia berrietara egokitzeko**, eragileagoa baina batez ere eraginkorragoa izate aldera. Berrikuntza hauek egin behar dira Toki Administrazioan lan egiten duten pertsonak kontuan hartuta. Udalen enpoderamendua nahi badugu, **langileriaren enpoderamendua** ere landu beharra dugu, batez ere esparru teknikoan, etengabe hobetzeko helburuan sartzeko.

Informazioaren gizartean, erakunde publikoak ezin dira egon pertsonak noiz hurreratu zain. **Komunikazio aktiborako ikuspuntua** egokitu beharra dago, **Administrazioa pertsonengana hurbiltzeko**. Toki Administrazioaren kasuan komunikaziorako estrategia honek oinarria izan behar du teknologia berriek eskaintzen dituzten aukeretan, zuzeneko komunikazioa ahalbidetzen dutelako, koste gutxiagorekin eta informazio zabalagoa hedatzeko gaitasunarekin, eta hau ohiko euskarriak erabilita eta euskarri berriak uztartzeko tresneriaren bidez eskaini ahal da.

XXI. Mendeko Administrazioaren beste erronka da **etengabeko ebaluaketaren exigentzia**, garatutako politiken egokitasuna aztertzeko eta bilatzen diren helburuei hobeto egokituta egongo diren politika berriak bideratzeko.

Teknologia berriek bide elektronikoak erabilita Administrazioaren eta hiritargoaren arteko harremanak ezartzeko aukera ematen dute (e-Administrazioa), zerbitzu presentzialak osatuta. Hain aldaketa handia aktibatzeak ez dio soilik formari eragingo, baizik eta fondoari ere. Udalek iraultza honi ekiteko konpromiso politikoa geureganatu behar dugu, horretarako behar den eraldaketa kultural eta antolakuntzazkoa kontuan hartuta. **Erronka Administrazio irekia (365/24)**, sarbide errazeko, eraginkorra, errealitatera egokitua eta kalitate handikoa. Eta aukerak, handiak dira zerbitzua hobetzeko eta kosteak aurrezteko.

## 7) Lankidetzan jarduteko borondatea eta Europar izatea

Udal mapa konplexua dugu, EAE eta Nafarroa artean ditugu 523 udalerrri, eta hauetatik % 4k baino ez du 20.000tik gorako biztanleria eta % 80k du 5000tik beherako biztanle kopurua.

**Lehen mailako hiri zerbitzuak dituzten 523 udalerrri dira, eta mantendu ez ezik, hobetu beharra ditugu;** eta hori Udalerrri eraginkor eta lehiakoragoekin baino ez dugu lortuko.

Lehiakortasun helburu hori lortzeko, Udalen arteko edo udalez gaindiko administrazioekiko **lehiakortasunetik igaro behar dugu osatzeko lankidetzara, "Udal Lankidea" kontzeptua garatuta.** Horretarako udal arteko harremanerarako formulak garatu behar ditugu, udalen arteko lankidetzarako, udal sareak..., teknologia berriek lagunduta eta proposamen berritzaileetan oinarrituta. Beti, eraginkortasun kodean. Zentzu honetan, formula ezberdinak erabil daitezke, adibidez, zerbitzuak emateko udal batasunak, azpiegiturak partekatzeak aukera, baliabideak kudeatzeko koordinazioa,... Ezinbesteko lankidetzak da gure Udalei eskatu behar zaiena eragiletasunean eta eraginkortasunean aurrera egiteko. Hau guztia baliabideak ondo erabiltzeko eta behar ez diren bikoiztasunak ezabatzeko.

EAJ-PNVn **"herri eta hirien" Europar sinesten dugu, behetik gora eraikitako Europar, euskal udalerritasunerako bizikidetzak eta elkartrukatzeko gune natural gisa.** Jakin badakigu, udalerrria dela hiri beharrezan behatoki naturala, hiritarren arazoetarako ekintza-erantzunerako eszenatokia. Esparru horretara doa hiritargoa lehen unean, eta bere ongizatea udalerrriak erantzuteko duen gaitasunaren arabera izango da. Zerbitzuak emateko eta kudeatzeko gaitasunaren arabera.

**Elkartegintzaren eta nazioarteko lankidetzaren onurak ere iritsi behar dira udal esparrura.** Era berean, Lobby lana, politikak pentsatu eta praktikan jar daitezten toki ikuspuntuaren ekarpenarekin. Horregatik ezinbestekoa da EUDEL eta FNMCren zuzeneko presentzia indartzea Europako Udalerrri eta Erregioen Kontseiluan (CMRE).

Udalak ezinbestekoak dira beste erakunde publikoek hartzen dituzten erabakiak hedatzeko, eta bereziki Europa mailan; Europar baita toki esparruari eragiten zaizkion politiken % 70 hartzeko esparrua. Euskaditik Europa ordezkatzeko duen batasun politiko, sozial eta kulturalaren partaideak **gara, eta Udaletatik europar hiritargoaren alde lan egiteko konpromisoa geureganatzen dugu.**

## 8) Laguntasun berezia udalerrri txikiei

Gure udalerrrietatik % 80 dira " udalerrri txikiak": EAEko eta Nafarroako 433 udalerritan 5000tik beherako biztanle bizi dira eta gure nortasunaren esentzia dira. Toki hauetan biztanleria hazkunde mailatik gorako neurrian hazten da. Zerbitzuen kalitatearen garapena nabarmenki handitu da baina oraindik erronka handiak daude:

- Iresgarritasuna, mugikortasuna, loturak.
- Azpiegiturak hobetzea.
- Nekazal guneei arreta ematea: lurzoruaren kudeaketa eta nekazal ingurua eta paisaia babestea.
- Arrakala teknologikoa murriztea/ezabatzea.
- Adinekoei arreta ematea, bereziki nekazal gunetako emakumeei.
- Udal garapenarekin konpromisoa hartu duten pertsonak aintzat hartzea.

Aldundiek eta Nafarroako Foru Gobernuak udalerrri txikienei zuzendutako laguntasunik nagusia ematen dute; aldi berean dinamizatzailerak eta udal sareen gune gisa jarduten dute honako esparru hauetan: Ikuspegi estrategikoa.

- Eskalako ekonomiak sortzea, baliabide teknikoak, azpiegiturak eta gizarte baliabideak partekatuta.
- Toki zerbitzu publikoen hedapen eta kalitatearen bermea.

## **Gure konpromisoak**



## **Garapen ekonomikoa eta lana jasangarritasunetik abiatuta**

Garapen ekonomikoa  
Azpiegiturak  
Hirigintza  
Ingurua zaintzea

## **Pertsonen inguruan garatutako gizarte ekintza**

### **A) 5 LEHENTASUN**

Enplegua  
Gizarte Zerbitzuak  
Etxebizitza  
Hezuntza eta gazteria  
Garraioa,  
mugikortasuna eta  
aparkalekuak

### **B) GIZARTEANAURRERA EGITEKO 10 ARLO**

Merkataritza  
Hiri segurtasuna,  
gizabidetasuna eta  
bizikidetzatza  
Kultura eta kirola  
Euskara  
Adinekoak  
Berdintasuna  
Integrazioa  
Osasun publikoa eta  
kontsumo arduratsua  
Elkartegintza  
Solidariorotasuna

## **Parte hartzea, gardentasuna eta konpromiso etikoa**

**Garapen ekonomikoa eta  
enplegua jasangarritasunetik abiatuta**

**Nuestros compromisos**



## Garapen ekonomikoa eta enplegua jasangarritasunetik abiatuta

### 1) Udalerriak, garapen ekonomikorako motoreak

Gure udalerriek eta foru herrialdeek garapen bikaina bizi izan dute demokraziako toki gobernua izan diren hogeita hamar urteotan. EAJ-PNVk gobernatzen dituen toki erakundeek eraginkortasunean eta jasangarritasunean oinarritutako kudeaketa egin dute gero eta elkartuago eta elkarrekin lotuago dauden herrialdeetan, baina oraindik, gainditu beharreko erronka batzuk badaude.

EAJ-PNVrentzat toki erakundeen egitekoa funtsezkoa da garapen ekonomikoa errazteko eta enplegua sortzea ahalbidetzeko.

Horretarako, Udal eta Foru Aldundiek Gobernuarekin lankidetzan, toki garapenerako estrategiak zuzendu behar dituzte honako esparruei ekiteko:

- Ekonomia globalizatu baten barruan lehiakorra izango den eta **berrikuntzan oinarrituko den**, eta energia berriztagarriak, biomedikuntza, material berrien garapena eta informazio teknologia berriak moduko esparruetan goi balio erantziko **sektore berrietara** bideratua izango den industria **ehuna mantentzea eta garatzea**.
- **Ekonomia Berrietara eta aisialdiari, kulturari eta aldaketa demografikoei lotutako beharrian sozialei lotutako zerbitzuen** garapena.
- **Sektore turistiko** bat garatzea, jasangarritasun ikuspuntutik aztertuta, gure balio natural, historiko eta kulturalari dagokion garrantzia emateko.
- **Lehen sektorea eta eraldaketa industria laguntzea**, balore ekonomiko handia izateaz gain (adibidez, ardogintza sektorea Arabar Errioxan) giltzarria da nekazal gunean eta arlo hauetarako garapenerako.
- **Hurbileko merkataritza** laguntzea, berrikuntzaren, kudeatzeko gaitasuna handitzearen eta elkarte egiturak indartzearen bidez kontsumorako ohitura berrietara egokitu behar dena.
- **Garapen ekonomikorako azpiegiturak garatzea** Parke Zientifiko eta Teknologikoak eginda, Berrikuntza Muturrak garatuta, Enpresa Berrien Haztegiak eratuta,...
- **Berrikuntzaren sustapena** enpresa eta gizarte eragile, sozial eta ekonomikoen artean, bereziki eragile teknologikoak eta B+G eragileak lagunduta.
- **Gure herria eta bertako enpresak kanpoan sustatzeko** inbertsioa, Euskadiko herrialdeak bilduko dituen aliantza estrategikoarekin, erakapen ekonomiko, turistiko, kulturalerako eta herrialde mailako birgaitzerako mutur gisa.

Estrategia honen markoan, **Udalerrriak izango dira garapena ahalbidetuko duten eragileak**. Enpresen ezarpena lagunduta, pertsona ekintzaileei bidea erraztuta eta herrialdearen garapenaren zerbitzurako barruko baliabide guztiak erabilia.

EAJ-PNVk birsortze eta birgaitze sozio-ekonomikorako egitasmo berezien bidez **krisialdi ekonomikoak gogorren kaltetu dituen udalerrien garapena bultzatzeko konpromisoa hartzen du**.

Foru erakunde, Batzar Nagusi eta Aldundiek azken urteotan garrantzi eta pisu handiagoa izan duten egitekorik nagusia izan da euskal gizartearen **azpiegitura eta ekipamenduak modernizatzea**. Errepide arloan dagoen eskumenaz gain, era guztietako oinarriko zerbitzuak hobetzeko eta modernizatzeko ekimen eta inbertsioak egin dira.

Kultura eta aisialdirako ekipamenduetatik hasita, bidaiariak garraiatzeko zerbitzu sare sendoa osatzeraino, Aldundiek orain arte egin dute eta aurrerantzean ere egingo duten buruzagitza instituzionala bideratu beharko dute.

Denok partekatzen dugun helburua da euskal hiritargoaren bitzta kalitatea hobetzea, komunikazio eta zerbitzu sarearen hobekuntzak **herrialde osoaren garapen harmonikoa ahalbidetu dezan**, ongizate maila bera izan dadin eskualde eta udalerrri guztietako hiritarrentzat.

Era berean, herrialde esparruko erakunde bakoitzak beren inguruko beharrianak asetzeko lanak programatu eta planifikatu beharko ditu, ingurumenarekiko begirunea gordeta eta lurzorua eta herrialdearen erabilpen eta antolaketa egokia eginik.

Azpiegitura modernoak zaintzea eta mantentzea da gure gizartearen lehiakortasun faktorea. Beraz, **toki pribilegiatuan gaude eta zaindu eta sustatu beharra dago** honako ildo hauek jorratuaz:

- Aukera guztiak eratzeko jarduerak ekonomiko eta sozial berriak ezartzeko.
- Turismoa eta merkataritza, kultura eta aisialdi esparruetako harremanak bultzatzeko erakargarritasun berriak sustatzea.
- Garraiatzeko era berriak identifikatzea eta sustatzea, igorpen kutsakorrak murriztea ahalbidetzeko.
- Hirigintzari lotutako jarduerak egitea, udalerrriak eta biziguneak funtzionalagoak, atseginoagoak eta gizatiarragoak izatea bermatuko dutenak.

## 2) Garapenerako azpiegiturak

### 3) Planifikazio eta hirigintza kudeaketarako eredu berria

Oraingo testuinguruan, lurzorua ordenamendua eta etxebizitza berrien sormena hiri esparrua sortzeko ikuspuntutik ulertu behar da. Tamaina fisikoa edo biztanle kopurua alde batera utzita, erkidegoa bizia eta balorea sortzen duen esparrua delako. **Hiria ez da esparruaren eta bere hazkundearen antolamendu hutsa, ez da etxebizitza edukina, bizikidetzeta eta interakzio sozial eta ekonomikorako esparrua baizik.**

Horregatik, gero eta gehiago, etxebizitza izateko eskubidearekin batera hitz egiten da "hiria izateko eskubideaz" eta kontzeptu horretan ulertzen da esparru publikoa, edertasuna, mugikortasuna, iresgarritasuna, erdikotasuna, bazterketarik eza eta hiriko ingurumenaren kalitatea.

**Jasangarritasuna izango da ezinbesteko irizpidea hirigintza planteamendu eta kudeaketan.** Lurzorua ondasun eskas eta iraungikorra da eta beraz erabilpenik onena bermatu beharra dago. Planeamendua, kalifikazioa eta kudeaketa ardua osoz bereganatu behar dira. Eta hau, toki boterearengan jarri behar delakoan gaude. Udal autonomia errespetatuta, Udalei baliabide berri, malgu, osagarri eta alternatiboak emanda, hiritarren eskari nagusi eta funtsezkoenei erantzun ahal izateko bidea aukeratu ahal izateko.

### 4) Euskadi jasangarriaren bila

Gure herri eredian **jasangarritasuna bilatzea** etengabeko ahalegina izan da euskal udalerritasun eta forutasunaren historian.

Ez da merezi duen etorkizun garapenik izango, gure ingurumen baloreak eta gure oreka sozioekonomikoa zaintzeko gai ez bagara. Gure gizarteak aurrera egin behar du beti, naturarekiko oreka bilatuta; eta lan hori euskal aldundi eta udaletatik garatu izan da, gure hiritarrek batera ongizate maila handiarekin duen herri modernoa eginda, baina aldi berean ondare natural aberats eta anitzarekin eta gizarte egitura orekatuarekin.

Lan ildo guztiak garrantzizkoak direla argi izanik, oraingo egoera honetan gure **ahaleginak jasangarritasunaren arlo energetikoetan jarri behar ditugu**, energia eraginkortasuna duten estrategia eraginkorrak diseinatu eta garatu behar ditugu, eta ahalegin berezia egin energia bitarteko berriztagarrien bidez sortzeko, gure udalerrietan aldi bereko aberastasun eta garapen ekonomikoa sortzeko. Etxebizitza jasangarriagoa egiteko ereduaren beharrezana ere azpimarratu behar da.

Horretarako, beharrezko jotzen dugu **"Alkateen Ituna"** izenekoaren aldeko apustua egitea, 2020 urterako eraginkortasun energetikoaren % 20ko igoera, CO2 jaulkipenen % 20ko murrizketa eta energia berriztagarriaren sorreraren % 20 igoera erdietsi nahi duen europar mugimendua.

Udalen eta herriko gainerako erakundeen arteko lankidetzaz lana indartu beharra dago, hasitako ekintzek eraginkortasun handiagoa izan dezaten. Udalek eta foru erakundeek egiazko eragile aktibo izan behar dute datozen urteotan aurre egin beharko diogun paradigmen aldaketan.

**Hiri eta herri jasangarriak behar ditugu.** Horretarako EAj-PNVk hurrengo jarduera lerroak planteatzen ditu datozen 4 urteotarako:

- Sentsibilizazio eta gizarte heziketa kanpainak garatzea hurrengo hauek lantzeko: Murriztea, Berrerabiltzea eta Birziklatzea.
- Hiri eta industria hondakinak bereiztu, batu eta tratatzeko sistemak hobetzea.
- Energia aurrezteko neurriak martxan jartzea.
- Toki publiko eta pribatuetan energia berriztagarriak sustatzea.
- Ura aurrezteko egitasmoak garatzea hornikuntza sareen hobekuntza barne.
- Toki babestu berriak hobetzea eta garatzea.
- Parke eta berdegune berriak hobetzea eta garatzea.
- Egitasmoak garatzea hiritargoak toki aberastasun eta aniztasuna ezagutu ditzan.



**Pertsonengan errotutak  
udal jarduera**

A) 5 LEHENTASUN

**Gure konpromisoak**

## Pertsonengan errotutako udal ekimena:

### 5 lehentasun

#### 1) ENPLEGUA gure lehentasun nagusia

Pertsonak izango dira toki mailan herrialdearen eta hiritarrentzako zerbitzuen inguruan hartuko diren erabakiak hartzeko ardatza, eta **gure auzokide guztien bizitza kalitatearen hobekuntza jasagarria izan behar dute isla argia.**

Esparru guztiak garrantzizkoak diren arren, EAJ-PNVk 5 lehentasun nagusi planteatzen ditu 2011-2015 urte bitarteko udal eta foru legegintzaldirako:

**Enplegua, eta are gehiago oraingo inguruabarretan, Udal eta Aldundien kezka nagusia izan behar litzateke.** Ezin baita udalerrri kohesionaturik izan gure biztanleriaren gehiengoak lanik ez badu.

Enplegurako toki estrategiek **okupazioa-langabezia binomioa aurreikusi behar dute.** Zentzu honetan, oraingo egoeran langabezi maila kezagarria den arren, **argi izan behar dugu okupazio maila era nabarmenean hazi dela azken hogeita hamar urteotan, eta bereziki emakumearen kasuan.**

Okupazioari dagokionez, toki garapenerako estrategiek, ahal den neurrian ahalbidetu behar dute **lan aukerak tokiko biztanleriak aprobeitatu ditzala.** Horretarako, udalerriek ezinbesteko egitekoa dute aukera hauek identifikatzea **tokiko enpresa ehunarekin harreman etengabea, tokiko biztanleri aktiboaren gaitasun profesionalak ehun produktiboaren beharrezkoak egokitzean, Aldundi eta Gobernuarekiko lankidetzan prestakuntza egitasmoak diseinatuta eta martxan jarrita, eta etengabeko ikaskuntza kultura sustatuta, inguru ekonomikoki aldakor eta lehiakorren, lan egonkortasunerako bermerik hoberena delakoan.**

EAJ-PNVk enplegu inguruan honako jardura larriak planteatzen ditu datozen 4 urteei begira:

- Langabezian dauden pertsonen **informazio, aholkularitza, kalifikazio eta lanerako laguntasun zerbitzuak** jasotzen dituztela bermatzea, arreta pertsonalizatuaren bidez eta epe ertain eta luzera begira lan munduan sartzeko xedearekin.
- **Gizarte zerbitzu eta enplegu zerbitzuen arteko lankidetzaren** bermatzea, lana bilatzen dutenek oinarriko beharrezkoak bermatuta izan ditzaten eta horrela lan munduan sartzeko ibilbideari ekitekin izan dezaten.

- **Udal kontratazio programak** toki edo eskualde esparruan eskari errealeko lanetara bideratzea eta, edozein kasutan, kontratatzeko tresna osatzea, kasu askotan ezinbestekoa baita langabeziak jotako familiek aldi baterako diru sarrera duinak izan ditzaten, eta babes zerbitzuak ematea **merkatuko lanpostua eskuratzea** errazteko.
- **Lan munduratzeko zailtasun bereziak dituzten gizarte taldeei zuzendutako lan eta prestakuntza programak garatzea**; adibidez, kalifikazio gutxiko gazteak, lan merkatura sartzea erabaki duten emakumeak eta 50 urtetik gorako pertsonak.
- Enpresa eta erakundeen **Gizarte Ardura** sustatzea, eta zehatzago lanarekin erlazionatuta dagoena.
- **Ekintzailetasun kultura eta berrikuntza** sustatzea, batez ere hezkuntza esparruan.
- **Autoenpleguaren bidez beren lanpostua eta enpresa txikiak sortu nahi dituzten pertsonen laguntzea**, laguntasun zerbitzuak ematea eta udal edo foru tokietarako sarbide lagundua eskainita, lana sortzeko laguntasunak emanda,...
- **Prestakuntza jarraituaren eta etengabeko ikaskuntzaren kultura** sustatzea, enplegurako funtsezkoak diren gaietako ikas prozesuak bultzatuta eta lagunduta, besteak beste hizkuntzak eta teknologia berriak.

## 2) GIZARTE ZERBITZU aurreratu eta jasangarriak

Gizarte ongizatearen aldeko apustua, pertsonen bizitza kalitate hobeko bidean aurrera egiteko lanak gidatu behar du erakundeek ekimena gizarte zerbitzuen alorrean. Ongizatea euskal hiritargoarentzako eskubidea izan behar da.

Babes eta arretarako gizarte sistema, guretzat PERTSONAK diren aktiborik handienean oinarritutako garapen ekonomiko eta sozialerako ereduak eraikitzeke zutabe gisa egituratzen da.

Eraldaketa demografiko handia bizi dugu, bizitza itxaropena luzatu egin da eta ondorioz biztanleriaren piramidea goitik behera jarri da. Zahartze demografikoa da etorkizuneko Euskadiren eszenatokia marrazten duten faktoreetako bat. "Luzeago eta baldintza hobekin bizitzea" bikotea lortzeko erronkak adineko biztanleriaren parte hartzea bultzatzeko beharra sortu du, adineko pertsonen lotutako estereotipo tradizionalak aldatuta.

**Bestelako errealitate sozialerako diseinatu den ongizate sistema daukagu; beraz, oraingo errealitateara egokitu behar da eta hurbileko etorkizunerako prestatu.** Honek beharrezko aldaketak ekarriko ditu erakundeetan, Administrazioan eta gizartearen. Orain jardun behar dugu errealitate instituzionala eta politika publikoak oraingo eta etorkizuneko errealitateara egokitzeke.

2008ko Gizarte Zerbitzuetarako Euskal legeak eskubide subjektibotzat jotzen du Euskal Prestazio Katalogoan aurreikusitako prestazio eta zerbitzuak jasotzekoa. Sistema honek errealitate eta egingarri egin behar ditu Gizarte Zerbitzuen katalogoko prestazio eta zerbitzuak zerbitzuetan ahal den kalitaterik handiena eskainita eta herrialde barruko oreka bermatuta, eta **Udalak** dira kasu honetan **Gizarte Zerbitzu horretarako sarrerak**, bertara hurbiltzen diren pertsonentzat. Udaletako profesionalak dira lehenak, Administrazioak hiritargoaren aurrean duten aurpegia. **Pertsonak Gizarte Zerbitzu sistemarekiko interlokuzioa udal langile baten bidez egingo da.** Arreta eta informazio zerbitzua eskaintzeko ardura dute; lehen diagnostikoa egiteko eta aholkularitza sozial eta profesionala eskaintzen dute; prebentzioa bultzatzen dute etorkizuneko mendekotasun kasuak, babesgabetasuna eta bazterketa egoerak murrizteko.

EAJ-PNVren helburua da autonomia, aukera berdintasuna eta euskal hiritargoaren bizitza kalitatea sustatzea, pertsonen bizitzan zehar ditugun beharrezko ezberdinetarako erantzun egokiak eskainita. Hau guztia, krisialdi ekonomikoak eta gizarte errealitatean gertatzen ari diren aldaketa sakonek markatutako testuinguruan. Eszenatoki honetan **sistemaren jasangarritasuna** bermatu behar da, honako esparru hauetan ekinez:

- Gizarte zerbitzuak eskarrietara egokituta.



- Kudeatzeko eredu berriak garatuta Hirugarren Sektorearen eta ekimen pribatuaren lankidetzan euskarrituta.
- Teknologia berriek eskaintzen duten potentziala pertsonen ongizatearen zerbitzura erabilia.
- Iruzuraren kontrako borroka irmoa eginez.

Edozein kasutan, **inbertitzen jarraitu beharko dugu gizarte zerbitzuak honako neurri hauen bidez hedatzeko:**

- **Oraingo baliabide sarea hedatzea**, behar dituzten pertsonengandik ahal den hurbilen egon daitezen, pertsona erabiltzaileen gizarte integrazioa bultzatuko duten zerbitzuak hedatzearen eta ugaritzearen bidez; adibidez laguntasun pertsonalerako zerbitzuak, laguntza egitasmoak, eta abar.
- **Etxez etxeko laguntasun zerbitzuen dibertsifikazioa**, famili egiturari edo erkidegoari laguntzeko.
- Adina, gaixotasuna edo gaigabetasunagatik ahultasun edo zaurkortasun egoeretan dauden pertsonekin bizi diren **familiei laguntzeko baliabideetan inbertitzea**. Errekurtsio hauek ekonomikoak edo zerbitzuak izan ahalko dira zaintzaileei babesa emateko eta pertsona eta familia zaintzaileentzako lasaialdia emateko egitasmoen bidez.

Halaber, enplegurako politika aktiboen eskumena sartzeari, EAJ-PNVren ahaleginari esker erdietsitako lorpen hau aukera paregabea da gizarte zerbitzu eta enpleguaren arteko lankidetzaren egokia ezartzeko, errealitate hau guztiz beharrezkoa da eta bereziki gauzatu behar da toki esparruan.

### 3) ETXEBIZITZA: Etxebizitza izateko eskubidea errealitate eginez

Lehen etxebizitza eskuratzeko ezintasuna da euskaldunen lehen arazoetako bat, eta bestelako arazo batzuk eragiten ditu pobrezia-aren kontrako borrokarekin eta laguntasun sozialen sistemarekin erlazionatuta. Bestelako gizarte arazoekin gertatzen den moduan, etxebizitza eskuratzeko zailtasun hau ageriago dago toki esparruan.

Horregatik ulertzen dugu udaletatik lan egin beharko dugula etxebizitza arloan konponbideak eskaintzeko, nagusiki etxebizitza babestuen aldeko arrazoizko prezioan eta eskubide hori bermatzeko laguntasun publikoak eskainita. Halaber, honakoak landu beharko lirateke:

- **Toki etxebizitza politikak finantzatzeko formula berriak** identifikatuta eta erabilia. Mailegu erakundeekin akordioak ahalbidetuta.
- **Gizarte bazterketa egoeran dauden taldeei etxebizitza eskuratzeko errazteko egitasmo bereziak** garatuta.
- **Hiri birgaitze eta eraberritze egitasmoak bultzatuta**, antzinako etxebizitzak gaur egungo gizarteak behar dituen erosotasun estandarretara egokitzea ahalbidetzeko eta "getto" esparruak sortzea ekiditeko. Udalek ezinbesteko egitekoa dute hiri birgaitze eta eraberritze prozesu hauetan, birgaitzeko tokiak eta gaineratutako gizarte arazoak ondo ezagutzen dituztelako.
- Babes ofizialeko etxebizitzak egiteko promozio berrietan **babes ofizialeko etxebizitza kopuru gero eta handiagoa** alokatzeko izan dadila bermatuta, baina gainerako kalifikazioetako etxebizitza babestuak egiteko egitasmoak bermatuta, merkatuan egon daitezen gizarte talde guztientzako eta beren diru sarreren araberako etxebizitzak.
- Aldi berean **etxebizitza tasatua** moduko bestelako formulak sustatuta, etxebizitza jabegoan izan nahi duten baina merkatu librean erosterik ez duten eta diruz lagundutako etxebizitzarik eskuratzeko aukerarik ez duten pertsonen laguntzeko.
- **Inor bizi ez den etxebizitzak merkaturatzen** lagunduta, alokatzea sustatzeko zerga neurriak ezarrita.

Lan munduratzeko eta etxebizitza eskuratzeko zailtasunak dira gure gazteriaren emantzipazio prozesua zailagotzen duten eragozpenik nagusienak, gazteri honek **hezkuntza eta prestakuntza** arloan dugun arreta jaso beharko du gazte biztanleri multzorik ez dadila hezkuntza maila baxuan geratu; honek lan eta gizarte etorkizun eskasa suposatuko luke, kontuan izanik Ezagutzaren Gizartean, gero eta lanpostu gehiago lanbide profesional maila ertain edo altuan izango direla ezartzen duten txostenak.

Gazteriak eragindako erakundeen arteko esku hartze koordinatua behar du. Udalek jarduera transbertsala bultzatu behar dute beren udalerrietan gazteria arloko ekimena garatzeko, eta udalez gaindiko erakundeen laguntasunarekin, elkartutako eta elkartu gabeko gazteen eta gazteriarekin erlazionatutako gizarte eragileen parte hartzea beharko da. Horregatik, EAJ-PNVk hurrengo neurri hauek hartuko ditu toki esparruan:

- **Hezkuntza eta prestakuntza sustatzea.**
- **Hizkuntza eta teknologia berrietako prestakuntzari** bultzada eta laguntasuna ematea.
- Gure udalerrietako **eskola eta formazio ekipamenduak** hobetzeko lankidetzeta.
- Eskola porrota prebenitzeko **egitasmo sozio edukatiboak** martxan jartzea.
- **Liburutegi publikoen** dinamizazioa eta hobekuntza.
- **Irakurzaletasuna** sustatzea.
- Gazteen artean bizitzeko modu eta jarduera osasungarriak sustatzea, **aisialdi parte hartzailea** bultzatuta eta **jarduera kulturala eta gazteen mugikortasuna** lagunduta.
- **Baloretan** hezteak.
- Gazte taldearekiko **komunikazio bide egokiak** martxan jartzea.

## 5) GARRAIOA, MUGIKORTASUNA ETA APARKALEKUAK: lotura gehiago ingurumenean eragin txikiagoa izanda

Gauza asko aldatu dira gure gizartean azken urteotan, baina aldaketa hau gehien nabarmendu da pertsonen mugikortasunean eta merkantzien garraioaren gorakadan. Dimentsio hau ekonomia, lan edo aisialdiarekin erlazionatutako arazoiekin lotuta dago eta behartzen gaitu erantzun egokia ematera, egitura eta garraiobide berriak eraikitzea, barruko eskariari eta kanpokoarekiko loturari erantzuteko, baina oraingo mugikortasun ereduak ingurumenarentzat suposatzen duen eraso murriztuta.

Ondorioz, **garraio publikorako eskaintza hobetu** beharra dugu, hirien kongestio maila beheratu, leku aldaketetan denbora irabazi, hiri eta herri " abegikorragoak" egin eta ingurumen aldetik inguru jasangarriagoak egin.

Horregatik, EAJ-PNVren aldetik honakoak proposatzen ditugu:

- Hiri inguruaren kudeatze integrala egitea, etxebizitzarako dedikatutako esparru berrien planifikazioan eta enpresa edo aisialdi jardueretan kasu bakoitzerako garraio soluziorik egokienak izan daitezten.
- **Garraio sistema ezberdinen integrazioan aurrera egiten** jarraitzea ( autobusa, metroa, trena, tranbia) hiritargoari garraio publikoaren erabilpena handitzen laguntzeko kalitatezko erantzuna eskaintzeko.
- Trafikoa kontrolatzeko **teknologiak** hobetzea, mugikortasun arinagoa errazteko.
- Garraio publikoarekin konbinatzea errazteko, aldirietako aparkaleku eskaintza zabaltzea.
- **Txirringaren** erabilpena sustatzea, gure herri eta hirien artean dauden txirringetarako kale-bideen arteko loturak eginda.
- Garraiorako **auto elektriko**en erabilpena sustatzea.
- **Oinezkoentzako gune eta kale berriak** sortzen jarraitzea.
- Trafiko geldorako guneak ezartzen jarraitzea, eskola guneak lehenetsita.
- **Autobusetarako bideak** egiten jarraitzea.
- **Garraio publikoarekin erlazionatutako ekipamendu eta instalazioak** berritzen jarraitzea.
- **Hiritarrei garraio publikoaren inguruko informazioa** emateko zerbitzuak hobetzen jarraitzea.



**Pertsonengan errotutako  
udal jarduera**

**B) GIZARTE  
AURRERAPENERAKO  
10 ARLO**

**Gure konpromisoak**

## Pertsonengan errotutako Gizarte Ekintza: **GIZARTE AURRERA- PENERAKO 10 ARLO**

### **1) HURBILEKO MERKATA- RITZA: Gure herri eta hirietarako bizitasuna**

Arestian aipatutako 5 lehentasunekin batera, EAJ-PNVk beste 10 arlotan konpromiso argiak proposatu nahi ditu eta bultzada honek zalantzarik gabe suposatzen du gizarte aurrerapena:

Hiri garapen berriek eta gizarte aldaketa berriek gure herri eta hirietan merkataritza txikiaren indarraren galtzea ekarri dute. Merkataritza txikiak salerosketa funtzioaz gain, erakargarritasuna sortzen du eta harreman sozialak eta zerbitzuak elkar trukatzeko gunea osatzen du. Hurbileko merkataritzaren jarduerak bizitza kalitatea ematen du herri eta hirietan, gizarte jardueraren elementu nagusi izanik; herrialdea egituratzeko eta dinamizatzeko funtzioa betetzen du, "erdikotasuna" sortarazten du eta tokia bera erakargarri egiten du.

EAJ-PNVrentzat "merkataritza bizitza da" eta "merkataritzak hiria egiten du"; ondorioz, hurrengo neurri hauek proposatzen ditugu merkataritza txikiak laguntzeko eta garatzeko:

- **Hiriguneetan eta auzoetan merkatal guneak dinamizatzea**, motibatze giroa ezartzeko eta aisialdia eta dibertsioa bezeroak lortzeko elementu izan daitezen, eta beraz, beste merkatal formatuekin lehiatzeko.
- **Hurbileko merkataritza tokiko hiritarren artean sustatzea**, merkataritza txikiarekin batera sentsibilizazio kanpainak eginda.
- Toki merkataritzaren **kanpoko proiektzioa**, "merkatal turismoa" erakartzeko merkatal bideen sorrera bultzatuta.
- **Merkatarien elkarrekin etengabeko lankidetzan jardutea**, eskaintza integrala artikulatzen laguntzeko eta merkatal dinamizazioarako ekimenak zuzentzeko eragileak diren aldetik.
- **Hiri garapen berrietan hurbileko merkatal guneak sustatzea**.
- **Merkatal gune txikiak modernizatzeko laguntasuna** ematea, teknologia berriak sartzea bultzatuta, kontsumitzailearekiko interakzio handiagoa ahalbidetzeko eta marketing eta kudeatze estrategia berrietako prestakuntza laguntzeko.
- **Udal merkatuak dinamizatzea**.

Gure herri eta hirietan delitu kopuruak baxuak diren arren, segurtasunik eza da hiritargoaren kezkarik nagusienetakoa. Segurtasuna ez da soilik poliziaren gai bat, gai globala den moduan ulertu behar da eta bertan hainbat faktore daude gizarte, ekonomia eta kulturarekin erlazionatuta, eta horietan era koordinatuan jardun behar da dagokien zerbitzu publikoen aldetik eta hiritargoaren parte hartzearekin.

Horregatik, EAJ-PNVren aldetik **pertsonen, jabetzen eta lurraldearen gaineko segurtasun politikak garatzearen aldeko apustu sendoa egiten dugu eta gizabidetasuna eta bizikidetzaren sustatzeko**. Horretarako, ezinbestekoak izango dira hurrengo neurriak:

- Gure herri eta hirietan polizien presentzia handitzea.
- Teknologia berriak erabiltzea delituak prebenitu eta jazartzeko.
- Ertzaintza, Udaltzaingo eta toki polizien arteko lankidetzaren hobetzea, elkar lotutako informazio sistemak aurreikusiko dituzten akordio bidez.
- Udaltzaingoetan etengabeko prestakuntza egitea.
- Udaltzaingo Zerbitzuetako Mankomunitateak sortzeko aukera aztertzea, udalerriz ezberdinei zerbitzua emateko.
- Garrantzizko gizarte eragileekiko koordinazioa indartzea informazioa emateko eta segurtasun neurrietan lankidetzan jarduteko orduan.
- Delituen biktimak babestea eta bereziki genero bortxakeriaren biktimak.
- Gazte delinkuentzia prebenitzeko, ikastetxeetan drogak kentzeko eta ingurumena babesteko egitasmoak garatzea.
- Berriazko lana egitea bide segurtasuna hobetzeko.
- Gizabidetasunari ezaren kontrako neurriak praktikan jartzea, adibidez pertsonen edo ondasunen publiko zein pribatuen errespetua, atsedena hartzeko, askatasunean ibiltzeko eskubidea edo gure herri eta hiriak gozatzeko eskubidea gordeta.

## 2) HIRI SEGUNTASUNA, GIZABIDETAS UNA ETA BIZIKIDETZA: Begirunean errotutako gizarte loturak

### 3) KULTURA ETA KIROLA: aisi aktibo, aberasgarri eta garapenerako motorea denaren alde lan eginez

Kultura da gizarte aurreratu batean gizarteak egiten duen eskaririk handienetakoa, eta horregatik Udal eta Aldundiek eskari horri erantzuna emateko derrigorra dugu, **kulturaren adierazpen guztiei tokia emateko guneak ahalbidetuta**, bereziki sormena eta berrikuntza garatzen dutenei. Ezin dugu ahaztu **kulturak dimentsio ekonomiko handia duela** eta hirietan era berezian bistaratzen da, toki eta nazioarte mailako hiri turismorako eta sormen talentu berrietarako gune bilakatzen dira. Testuinguru honetan, udal esparrutik honako neurri hauek hartuko dira kultura sustatzeko:

- Kalitatezko **kultura egitarau** anitz eta zabala eskaintzea eta ezagutzera ematea.
- **Sormena eta arte sorkuntza laguntzea** eta sortzaileei, bereziki gazteei, beren arte jarduera garatzeko esparruak ahalbidetzea.
- Izaera pribatuko kultur mugimenduekin eta elkarteekin lankidetzan jardutea.
- Kultura **erakarpen turistikorako elementu gisa erabiltzea**.
- **Esparru publikoa kultur jardueretarako gune gisa sustatzea**.

Toki erakundeak, bereziki udalak, kirol zerbitzu publikoen kudeatzaile nagusienak dira, hiritargoarekiko duten hurbiltasun mailagatik. Toki esparruan kirol jardueraren garapen eta sustapena ahalbidetzeko eta errazteko erakunderik egokienak dira udal kirolen bidez, kirol patronatuen bidez eta toki izaerako kirol elkarten bidez. Kirolaren toki sustapenak honako jarduera larroak aurreikusiko ditu:

- **Kirolaren abantaila eta baloreen** sustapena.
- **Kirol instalazio eta ekipamenduen garapena** eta orain daudenak mantentzea eta berriztatzea.
- **Kirol elkarte eta klubekiko lankidetz**a eta laguntasuna.
- Gazte, emakume, adineko eta gaigabetutako pertsonen artean kirola sustatzeko berariazko egitasmoak garatzea.
- **Bertako kirolak** babestea.
- **Kirol lehiaketa eta gertakariak** erakartzea, antolatzea eta babestea.
- Kirolak gizarteratze eta kirol meztizajeen ekarpen modura eragiten dituen gaitasunak garatzea.



Euskal gizartearen ezaugarria da ondo zehaztutako nortasuna ematen diguten baloreak ditugula. **Kultur propioa eta hizkuntza propioa, eta toki esparrutik bertatik balora daitezke.**

Euskarak etorkizunera begira duen erronka da bere erabilera. Udal eta Aldundiek datozen urteotan egin beharreko ahaleginak bideratu behar dira Euskararen erabilera eszenatoki zehatz batzuetan hedatzeko, erabiltzeko esparru berriak lortzeko eta beste batzuk indartzeko, **egiazko elebitasunerako bidean aurrera egiteko estrategiaren barruan.** Horregatik, honako esparru hauek landu beharko dira:

- Euskararen aldeko adostasun sozial eta politikoa hedatzea eta indartzea eta hiritargoak erabilerarekin inplikatzeko eta konpromisoa hartzea.
- Euskaraz egindako kontsumo produktuen produkzioa eta banaketa sustatzea.
- Bizitza sozialean euskararen erabilera erakunde publikoen jarduerarekiko aniztasun eta osagarritasun kontuetan bultzatzea.
- Euskararen erabilera ahalbidetzea udaletxe barruan eta Udalak hiritarrekiko harremanetan.
- Euskara sustatzen duten eragile eta taldeekin lankidetzan jardutea.
- Euskararen garapena ume eta gazteen artean bermatzeko egitasmo berezituak garatzea.
- Gurasoen euskalduntzea ahalbidetzea, euskara famili eta etxe barruko esparruan bultzatzeko.
- Euskararen erabilera gizarte esparru zehatzetan bultzatzea, besteak beste merkataritza eta kultur eta aisialdi jarduerak.

Edozein kasutan, **EAJ-PNVk konpromisoa hartzen du udal eta foru erakundeetako hautetsiek beren jardun publikoan euskara erabiltzeari lehentasuna emango diotela.**

## 4) EUSKARA: gure hizkuntz ondarea zaintzea eta garatzea

**Zahartzea lorpen sozial eta pertsonala da.** Aukeretan gauzatzen den lorpena. Ederrena: bizitza egitasmo aktiboa garatu ahal izatea. Honek suposatzen du aisialdiaz gozatzeko gaitasun eta aukera eta **bizitzaren aldeko konpromisoa**; eta horretarako, prebentzio kodean lan egingo duten politikak behar ditugu. **Denok hartu behar dugu zahartzearekiko konpromiso aktiboa.**

Biztanleriaren zahartzea gelditu ezinezko eta atzera ezinezko fenomeno da, eta bereziki indartsua Euskadin, pertsonak, beren bizitza kalitatea eta beren ongizatea zaintzen duen gizartearen isla. Ahalegin honi esker bizitzaren aldi hau aprobetxatu ahal eta behar dugun aukera bilakatu da.

**Pertsona nagusiek kapital aktibo garrantzitsua suposatzen dute.** Gehiengoa dira buru eta gorputz aldetik egoera onean dauden adinekoak eta zahartze aktiboa laguntzeko politikak behar dituzte. Beren bizitza egitasmoetarako laguntasunak behar dituzte kultur edo kirol zerbitzu alorrean; era berean gizartearen eskura jartzen dute beren eskarmentua, jakinduria eta baliabideak, eta beste pertsonen ongizateari laguntzen diote, adibidez gizarte boluntariotzan arituz.

Biziraupenaren luzatzeak **mendetasun tasen hazkundera ekartzen du.** Pertsona hauek eta beren familiakoek behar dituzten erantzun hauek artikulatzeko, Aldundi eta Udalek bakoitzak bere eskumen esparrutik, erakunde arteko lankidetzak behar duen erronkari ekin behar diogu. Egoitza zerbitzuak inguruan zahartzeko desioa betetzea lagunduko duten zerbitzu jarrai baten azkeneko mailan egongo dira. Baina, hau guztia errealitatea izan dadin, ezinbestekoa da mendeko pertsonen beharri zaindari eta familia zaintzaileei arreta emateko sistema eskaintzea.

Lehen kasuan, zerbitzu karteraren bidez, kalitatezko zerbitzu profesionalizatuak eskaintzeko hitzartutako formulak aztertuta. Famili barruko zaintzaren kasuan, hori ahalbidetzeko egitasmo eta laguntasun eskaintza zabalduta.

Printzipio hauetan oinarrituta, EAJ-PNVk honako jarduera lerroak proposatzen ditu:

- Gure udalerrietako adinekoei zerbitzuak emateko beharrezko **baliabide eta egitasmoak jartzea.**
- **Adinekoetaz arduratzen diren elkarte eta eragileekin** etengabe hitz egitea eta lankidetzan jardutea.
- Autonomia pertsonala duten adinekoei zuzendutako zerbitzuak indartzea, gizarte talde honentzako ekipamenduak ezarrita eta handituta, kultur eta hezkuntza ekimenak lagunduta, alfabetatze digitala eskainita, kirolaren praktika sustatuta, ...
- **Aurre-mendekotasunaren inguruko tailerrak** antolatzea, pertsona hauek eta familiakoak mendekotasun egoeretarako prestatzeko.

- **Mendekotasun egoeran dauden adinekoei eta beren famili inguruari zuzendutako zerbitzuak ugaritzea, besteak beste, etxez etxeko laguntasun zerbitzua, tele-arreta zerbitzua, aldi baterako egoitzak eta aldi luzerako egoitzak,...**

Pertsonen arteko berdintasuna funtsezko eskubide gisa bermatzea, sexua, joera sexuala, erlijioa edo arraza bata zein bestea izanik. Hori da gizartean dugun erronkarik nagusienetako bat. Udal eta Foru erakundeetatik berdintasun politikak jarriko ditugu martxan. Mailarik gorenean eta lehentasunezko gai gisa aztertuta.

Genero berdintasunaren inguruan, 4 urteotarako erronka da **emakume eta gizonen arteko eskubide berdintasunaren baliatze eraginkorrerako arrakalak txikitzea**, emakumeak esparru politiko eta erakundeetako, ekonomia eta enpresa munduko, esparru kultural, intelektual eta sozialetako **erabaki guñeetan sartzea bermatuta...** egiazko berdintasunerako aurre egiteko berme bakarra delakoan.

Genero arteko oraingo desberdintasuna da gizartean dagoen arazorik nagusienetakoa eta bortxakeria matxista da adierazpen gogor eta bortitzena. Ahalegin guztiak egin behar ditugu **bortxakeria matxistari amaiera eman diezaiogun**. Emakumeen kontrako bortxakeria errefusatzearen inguruko kontzientziatze soziala indartuta, adierazpen bitarteko guztiak erabilia eta indibidualki zein taldeka aurre egiteko estrategiak eskainita. Bereziki gazteen artean. Hori lortzeko, pertsona gazteei bortxakeria sexista ezagutu, antzeman eta borrokatzeko tresna eta baliabideak emateko ekimenak sendotu behar ditugu, hezkuntza arloan, jarrera sexisten prebentzioan lan eginda eta era guztietako erasoan aurrean jarrera aktiboa mantentzera animatuta.

Halaber, hirigintza arloan, gune beltz edo segurtasunik gabeak kentzeko lana egiten jarraitu beharko dugu eta elkarten bidez Hirigintza Kontseiluetan emakumeen parte hartzea sustatu behar dugu genero ikuspuntua Hirigintza Planetan edo hauen modifikazioetan islatze aldera. Kirol arloan, emakumeen toki kirola sustatzea ( taldeak, jarduerak). Eta, etorkinei dagokienez, integratzeko lana eta kultura guztiak ezagutzea ahalbidetuko duten jarduerak garatzea.

Era osagarrian, Toki Erakundeok **gay, lesbiana, transexual eta arraza edo sinesmen guztietako pertsonen eskubideak** bermatzeko lana egin behar dugu, berdintasunaren balorea eta ezberdinarekiko errespetua sustatuta eta gizarte barnerakoia lortzeko ahalegina eginda.



## 6) **BERDINTASUNA:** **Eskubideak eta errealitatea eraikitzea**

## 7) INTEGRAZIOA: Gure gizartea aberasten duten hirikide berriak

Azken urteotan asko aldatu da EAE eta Nafarroako udalerrien giza itxura. Gure auzo, herri eta udalerriek hartzen dituzten pertsona etorkinak 2000 urtean biztanleriaren % 1 a izatetik 2010 urtean igaro dira biztanleriaren % 7 ordezkatzera.

Integrazioa, gizarte kohesioa eta bizikidetzaz ahalegin eta erronka bizigarriak dira. Ez bakarrik geratzeko eta beren bizitza egitasmoa bertan garatzeko etorri diren pertsonentzat. Abegia ematen duten gizarteentzat eta botere publikoentzat ere. Denen egitekoa da hiritar guztiak, **bertokoak edo jatorri atzerrikoak berdintasunean hartuko dituen gizarte barnerakoia egiteko lana**. Erkidegoa egiteko, gizartean dauden eta egongo diren pertsonen artean herri etorkizuneko ikuskera planteatzeko modurik onena baita hauek guztiak gizarte horretako gaietan eta erabaki guneetan parte hartzea ahalbidetzea.

Integrazioaren funtsezko alderdietako bat da kultura ezberdinetako pertsonen arteko **bizikidetzaz sustatzea**, jarrera arrazista eta xenofobo orori gaitzespenik sendoena adierazita, **izaera, ohitura eta praktika ezberdinekiko errespetua sustatuta baina oinarrizko eskubide eta askatasunen eta antolaketa demokratikoaren kontra joan daitezkeen kontrako borroka irmoa eraginez**. Horregatik guztiagatik, udal eta foru erakundeek konpromisoa hartu beharko dute beren errealitate bereziko **integratze politikak zuzentzeko** eta beste botere publikoekiko lankidetzan jarduteko.

EAJ-PNVn garrantzi biziko jotzen dugu Osasun Publikorako eta ingurumena babesteko estrategiak uztartzen dituzten "udalerrri osasungarrien" garapena ahalbidetzea, hurrengo neurri hauetan oinarrituta:

- **Osasunerako hezteko** egitasmoak garatzea, gure adinekoentzat eta hiritargoaren osotasunari begira, prebentzio estrategia batetik ohitura osasungarriak sortzeko xedez.
- Eusko Jaurlearitzarekin hitz egitea toki biztanleriak **osasun arretan dituen beharizanen berri emateko**.
- Ostalaritza eta merkataritzan **garbitasun-osasun eta segurtasun** ikuskaritza ekimenak garatzea, kontsumitzaileen osasuna eta segurtasuna babeste aldera.

Kontsumo arduratsuaren inguruan, helburua izan behar litzateke ohitura eta balore berriak sustatzea kontsumoaren ikuspuntu etikoarekin bat eginik. Horretarako, Udal eta Aldundietatik honako neurri hauek jarriko ditugu abian:

- Kontsumo arduratsurako eta kontsumitzaileak babesteko **kanpaina pedagogikoak** garatzea.
- **Udal Kontsumo Bulegoen bitartekaritza** lana indartzea.
- **Kontsumitzaile elkarteekiko lankidetzak** indartzea.
- **Merkatu tradizionalak** **sustatzea** kalitatezko merkatal gune hurbilak diren aldetik.
- Udal eta Aldundien aldetik **"erosketa jasangarria"** **bultzatzea**, produktu eta zerbitzu ekologikoagoak eta jarrera egikoa eta giza eskubideekiko begirune eta sustapenarekin konpromisoa hartu duten hornikuntzak eta enpresak lehenetsita.

## 8) OSASUN PUBLIKOA ETA KONTSUMO ARDURATSUA: Udalerrri osasuntsuak eraikitzea

## 9) ELKARTE- GINTZA: Garapen eta parte hartzerako gizarte ehun aurreratua

Elkarteek ezinbesteko egitekoa dute gizarte ehun aurreratu eta elkartua lortzeko bidean aurrera egiteko orduan, eta funtsezkoak dira toki erakundeetatik sustatu nahi diren baloreak transmititzeko. Halaber, hiritarren parte hartzean aurrera egiteko bide paregabea eskaintzen dute.

EAJ-PNVk honako neurri hauek eskaintzen ditu elkarte ehuna eta elkarteek antolatutako jarduerak sustatzeko :

- **Erkidegoaren intereseko jarduerak antolatzeko eta hiritarrei informazioa emateko orduan** elkarte ehunarekin lankidetzan jardutea, elkarteek sustatutako jardueretarako laguntasun ekonomikoak barne.
- **Beren jardueretarako udal tokiak** eskaintzea.
- **Herrialdeko Elkarteen Gida eta Udalerrri bakoitzeko Gida** etengabe eguneratzea eta hiritarren artean zabaltzea.
- **Elkarteek Hiri Batzordeetan edo eztabaidarako** bestelako guneetan parte hartzea.

Garapenerako lankidetzaz betidanik izan da euskal gizartearen errealitate bat. Ondo sendotuta dago eta araudi berezia du, Garapenerako Euskal Lankidetzaz Legea.

**Herri solidarioa gara. Milurteko Helburuekin konpromisoa hartu duen herria.** 2000 urtean ezarri ziren munduko desorekak murrizteko helburu argiak.

Gure Herriaren esparruan garapenerako lankidetzaz 80. hamarkadatik aurrera izan du ibilbide luzea. Balantze positiboa da eta 20 urteotan garapenerako lankidetzaz politika zehaztera eramán izan gaitu. **Euskal udalerrien zati handi bat udal aurrekontuaren % 7 garapenerako lankidetzaren alde emateko helburura iritsi edo era esanguratsuan hurbildu da.** Bide horretan aurrera egiteko helburuaz gain, EAJ-PNVk hurrengo neurri hauek proposatzen ditu toki esparrutik solidariotasunean aurre egiteko:

- Garapenerako lankidetzarako ezarritako baliabide ekonomikoen **kudeaketaketarako era eraginkor eragile eta gardenagoak aplikatzea.**
- Euskal Fondoa moduko **sareak indartzea**, erakunde, gizarte antolaketa eta Hegoaldeko erkidegoekiko harreman solidarioen garapeneraren alde lan egiten duten toki esperientzia guztiak biltzen dituztenak.
- Solidariotasuna, genero ekitatea eta giza eskubideekiko errespetua **baloreak sustatzea**, batez ere gazteen artean.
- **Milurteko Garapenerako Helburuak** bultzatzea, gizarte zibilarekin eta beste administrazioekin batera.
- Gizarteari **praktika solidario onak** komunikatzea.
- **Gizarte boluntarioratza esperientziak sustatzea**, kanpora begira zein gure herri eta hirietara zuzenduta eta gizarte ongizate arloan esku hartze publikoaren osagarri izan daitezela.
- **Pobreziaren kontrako Itunaren** inguruko ekimenak bultzatzea.
- **Bidezko merkataritza** bultzatzea.
- **Erosketa publiko etikorako** irizpideak sartzea.

## 10) SOLIDARIOTASUNA: Udalerrri solidarioak kanpora eta barrura begira



**Parte hartzea, gardentasuna  
eta konpromiso etikoa**

**Gure konpromisoak**



## Parte hartzea, gardentasuna eta konpromiso etikoa

### 1) Hiritarren parte hartzea: gizartea denon artean eraikitzea

XXI. Mendeko kudeaketa publikoa parte hartze eta gardentasun printzipioetan oinarritu behar da. **EAJ-PNVk konpromiso etikoa mantentzen du** printzipio hauekin, hauek Administrazioaren edonolako mailetan aplikatu behar dira, baina bereziki toki esparruan, Hiritarra-Administrazioa interakzioa zuzenagoa eta sinpleagoa den eremuan.

Tokian tokiko parte hartzea da hiritarrek udal politikagintzaren ziklo guztian izateko aukera indartzea, Administrazio horretan duen konfiantza sendotzeko.

Zentzu honetan, Udal eta Aldundiek parte hartzerako tresnak sustatu behar dituzte, elkarriketa ireki eta jarraia mantenduta, gizarte eta ekonomia taldeen ordezkari diren erakunde bidez eta zuzenean hiritargoarekin. Zuzeneko parte hartze honetan ere Teknologia Berriek aukera paregabeak eskaintzen dituzte. Horretarako, EAJ-PNVk hurrengo neurri hauek sustatuko ditu:

- **Hiriko Batzordeen** bidez gizarte parte hartzerako bideak sortzea.
- Hiritargoaren **parte hartze zuzenerako** prozesuak sustatzea Hirigintza eta Gizarte Ekintzak moduko egitasmoak eta araudia egiteko orduan.
- **Gizarte sareetan toki erakundeen parte hartzea sustatzea**, hiritargoari entzuteko eta parte hartzerako aukera emateko bide gisa.
- Hiritargoari bere **kexak, iritziak eta iradokizunak arduradun politikoei zuzentzeko tresnak eta mekanismoak** eskaintzea.

Edozein kasutan, EAJ-PNVk konpromisoa hartzen du hiritargoak EAJ-PNVk udal eta foru erakundeetan izango dituen hautetsirengana jotzeko aukera bermatuko duela.

**Gardentasuna da Demokraziaren lehen baldintza.** Batez ere, Erakundeena baino, hiritarrenak diren baliabideen kudeaketaz ari garelako.

EAJ-PNVk kudeatutako udal gobernuek aurrerakada handia eman dute gardentasun gaitan azken urteotan, Bilboko udalak kanpoko sariak jaso ditu zentzu honetan. Jakin badakigu zentzu honetan beti dagoela zer hobetu, beraz EAJ-PNVk 2011-2015 udal eta foru legegintzaldirako izango duen konpromiso etikoa izango da kudeatuko dituen erakunde guztietan ahalik eta gardentasunik handiena ahalbidetzea, honako neurri hauek erabilita:

- **Gardentasuna udal kudeatze lanean, gobernu ekimen osoa hartuko duena eta batez ere aurrekontuetan, kontratazio publikoan eta soldata publikoetan.**
- **Legegintzaldirako konpromisoak eta helburuak aurreikusiko dituen Agintaldirako Plana egitea, honen betepenaren inguruko urteroko ebaluaketa egitea eta hiritarrei honen berri ematea.**

Halaber, EAJ-PNVk konpromisoa hartzen du udal eta foru gobernuetako kide guztiek ondasun adierazpena egingo dutela kargua hartzeko eta uzteko orduan.

**2) Gardentasuna:  
"Ate irekiak"  
izango dituzten Udal eta Aldundiak**

### 3) Jarrera etikoa: osoko ardura gure gizartearen aurrean

Baloreak bizitza publikotik irteten direnean, berehala agertzen dira neurririk gabeko kontsumoa eta pertsonak arrakasta ekonomikoaren arabera baloratzea sustatzen den gizarte giroaren isla baino ez diren etikaren kontrako jarrerak. Horretarako, baloredun kulturarekin batera doazen **tresna etikoak instituzionalizatu behar dira**, erkidegoaren onerako den interes orokorrera begira egongo den **zerbitu publikoa indartzeko balore** kulturarekin batera. EAJ-PNVk honakoa landuko du hurrengo 4 urteotan:

- **Udal eta Foru erakundeetan Gizarte Ardura sustatzea**, gobernu korporatiboan, ingurumenean, bezero eta hornitzaileekiko harremanetan eta erkidegoarekiko harremanetan neurri zehatzak martxan jarrita.
- Kultura hau era aktiboan hedatzea.

Edozein kasutan, EAJ-PNVk honako konpromiso hauek hartzen ditu:

- Udal eta Foru gobernuetako kide guztiak beren interesekoak edo beren familiakoak diren gaien inguruko erabakiak hartzeko guneetatik kanpo geratuko direla.
- Udal erakundeetako kide guztiek udal aurkari politikoekiko **errespetuzko jarrera politiko eta pertsonala** mantenduko dutela, irainik gabe, gehiegizko erasorik gabe eta praktika politika txarretan erori gabe.